

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Eskolan egindako lanarekin lotutakoak:

- ✓ Ekar itzazu etxetik **hondakin batzuk edota ontzi berezi batzuk** (lurrin-potea, parasetamol-blistar bat, umearen egurrezko margoak, zeramikazko gatzontzi bat...). Bildu guztiak gelan, eta txapelketa moduko bat antolatu. Txandaka esan beharko duzue nora bota behar den bakoitza. Gehien asmatzen dituen ikaslea gelako *ekotxapelduna* izango da!
- ✓ Ikasi duzun guztia ikasi ondoren, erabaki duzu Gasteizek beste modu batera antolatu behar duela zaborraren kontua. Horretarako, **e-mail bat idatziko duzu Herritarren Postontzira** eta bertan adieraziko duzu **zerk kezkatzen zaituen** eta **nola hobetuko zenukeen zabor-bilketa**. E-maila idatzi ondoren, eman iezaiozu irakasleari zuzen dezan. Eta, zuzendu ondoren, e-maila **bidali**; nork daki, agian hiriko bizitza hobetuko duen zerbait egingo duzu!

Telebistako saioei lotuta:

- ✓ Ikus ezazu **eitb.eus** orrialdean, **nahieran** aukera erabilia, *Glup* izeneko filma. "Erosi, erabili eta bota"; hori da ohikoena gaur egungo bizimoduan. Dendak hustu egiten dira eta zabortegeiak bete. Film honetako istorioa zabortegei batean gertatzen da, eta Glup eta Alize ditu protagonista nagusiak. **Animazio-film luzea** da; ordubete eta hamar minutu inguru irauten du. Animatu, **ikusi**, eta, hurrengo egunean, **kontatu** ikaskideei zer iruditu zaizun.
- ✓ Ikus ezazu **eitb.eus** orrialdean *Harian* saioko atal hau. Zaborren bilketak sortzen dituen arazoengatik ingurukoa da, *atez ateko bilketak* Gipuzkoan sortu zituen arazoez: <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/harian/4105019468001/40458/zaborrak-bilatzea/>

Webguneei lotuta:

- ✓ Irakurri **berri** hau. Ederra ideia, ezta? Bada, nahi izanez gero, gelan **idea-lehiaketa** bat antola dezakezue, ea nori bururatzen zaion zaborrak birziklatzeko beste bideren bat. Begiratu Interneten, ideia asko dago; baina **iragarkiak** ere. Ikusi eta azaldu gelan hurrengo egunean.
- ✓ *Gose* taldeak *Zaborra* izeneko kanta bat badu. Entzun nahi? [Jo helbide honetara](#). Gustatu al zaizu?
- ✓ "HH 3B gelako haurrak gelara itzuli dira, eta zaborrez beteta aurkitu dute. Zein izan da haien erreakzioa?" Ikus ezazu [helbide honetan](#).
- ✓ *Youtube* plataforman sartzen bazara eta bilatzailean "zaborra" idazten baduzu, **makina bat bideo interesgarri** aurkituko duzu. Animatu, **bilatu**, **ikusi** eta ikaskideei **gomendatu** ikusitako bideoren bat.

Hizkuntzari lotua:

- ✓ Nola **birziklatzen** dituzu **akatsak**? **Non sailkatzen** dituzu? Hausnar ezazu gaiaren inguruan, eta komentatu ikaskideekin. **Akats bakoitza dagokion edukiontzian** sailkatuta, baliteke errazago konpontzea, ezta? Pentsa ezazu sistemaren batean, eta partekatu ikaskideekin.